



***GOIENENGOA (Bernagoiti)***



## 1. Gotor-etxea eta aldameneko eraikinak

*Bernagoiti edo Goienengoa dorrea* delakoak deiturik, Bernagoiti auzora hurreratzen denak, lehenik eta behin, dorre zahar hori ikusteko parada izango du, guztien gaintik erakargarri, ikusteaz batera Erdi Aroko gure arbasoen garaietara eramango duena.

Gotor-etxe hau XVI mendearen hasieran eraikia izan daiteke, Bizkaiko aitoren semeen pentsamenaren aldaketaren erakusgarri:

Efectivamente, estamos ante un edificio cuyas características constructivas nos transmiten, literalmente, la transformación que se iba produciendo paulatinamente en la sociedad medieval de Vizcaya, es decir, de las torres militares repletas de elementos de ataque y defensa, en un ambiente sumamente hostil e inseguro, a los palacios renacentistas más o menos lujosos, abiertos y cómodos, propios de unos tiempos de paz y de comercio, como nueva actividad de los linajudos nobles de Vizcaya.

La “casería” de Goyenengoa –como aparece en la documentación- o “torre de Bernagoitia”, popularmente conocida por los historiadores, se construyó en un momento de transición de una época de guerra a una época de paz, y eso es lo que la hace ser el exponente más claro de casa-fuerte vizcaína: así, el edificio es “casa” porque posee un volumen reducido y apaisado, un buen número de vanos renacentistas que la convierten en un interesante palacio rural, así como una escalera de piedra o patín, lo suficientemente ancha como para permitirse acabar en un amplio balcón, a modo de cómodo mirador; pero es “fuerte” también, porque su arquitectura está directamente inspirada en sus predecesoras las torres militares: el citado patín puede, en cierta medida, dificultar un acceso masivo de personas, posee algunas saeteras, unos gruesos muros, incluso canes sobre los que apoyar un improvisado cadalso; además, está su privilegiada posición estratégica...<sup>1</sup>

Hor dirau, egun ere, ikuzketa sakon baten beharra ageriko badu ere.

1704ko Fogerazioan, “*la casa y casería de Bernagoitia, con sus heredades, montes y pertenecidos*” delako bat azaltzen zaigu; 1745ekoan, berriz, “*Otra llamada Goienengoa de Pedro de Zelaia. Vibe en ella*”. Ez gaude ziur 1704ko hura eta 1745 hau bat diren, baina argi dugu azken hau dagokigun dorrea dela, Pedro Zelaiarena.

1796ko Fogerazioan bi etxe azaltzen dira:

La de **Goienengoa** de Pedro de Celaia, de una hauittacion y una foguera.

Otra **inmediata** del mismo Celaia tambien con una hauittacion. Vna foguera.

Datu interesgarria: beste etxe bat dago, *Goinengoaren* aldamenean, hau ere Pedro Zelaiarena eta orain arte azaldu ez zaiguna. Ematen du, bada, 1746-1796 bitartean eraikia izan daitekeela.

Uste hau berretsiko duen datua aurkituko dugu 1798ko Fogerazioan. Honek, 1704koa oinarri harturik, data hartatik honetara eraiki diren etxe berrien zenbaketa egiten du: “*Nueva numeración de las Casas y edificios consttruidos en estta Antte Yglesia de Amorebietta desde el*

<sup>1</sup> GONZALEZ GATO, J. A.: 2001: “Historia de una casa-fuerte vizcaína: Goyenengoa”. *Castillos de España*: publicación de la Asociación Española de Amigos de los Castillos. Nº 120. Pag. 11-18.



*año de mil settecienttos y quatro aca, hecha con arreglo al Capitulo ttercero de la nueva fogueracion...”*

Feligresia de Bernagoittia

Primeramente la **casa nueva de Goienengoa**, propia de Pedro de Celaia.



Badugu, azkenik, hirugarren etxe bat, hau ere *Goienengoa* izenez ezagutua, bertako atarian jartzen duenaren arabera 1832an (ber)eraikia.

Etxe honi jarraipen berezia egingo diogu, hona ezkonduko baita *Kaudalategitik* etorritako Lorentzo Trifon Atutxa-Kaudalategi Zubero.



## 2. [Goienengoako sendi desberdinak](#)

Oraingo honetan ere, Eleiz Artxiboak eta Fogerazioak izan ditugu iturri *Goienengoa* etxaldeko jabe, maizter eta abarren berri izan ahal izateko. Bernagoitiri dagozkion Eleiz Liburuak 1660tik honakoak dira.

### 2.1. [Bernagoitiarrak](#)

**1679-05-19:** Ursola Bernagoitia Mekolaren jaiotza (*EE\_AA\_jaiotzak\_729971*)<sup>2</sup>

<sup>2</sup> Bizkaiko Eleiz Artxibo Historikoak. Hiru sailetan banandu ditugu: jaiotza, ezkontza, heriotza. Eskumako zenbakia artxiboan dagokion identifikazio zenbakia da.



Bernagoitiko San Migel eleizan inskribatua ageri da Ursola honen jaiotza. Pedro Bernagoitia Orozketa eta Ursola Mekola Zamalloaren alaba dugu.

Urte batzuk beranduago, Maria Perez-en (1682-11-06) eta Marinarenak (1686-06-05) ere aurkituko ditugu.

**1704: Fogerazioa (BFAAH-AH05012/099)<sup>3</sup>**

Primeramente la **casa y caseria de Bernagoitia**, con sus heredades, montes y pertenezidos.

...

Iten la casa y cass<sup>a</sup> de Mecola de suso, con sus heredades, montes y pertenezidos.

Yten la casa y cass<sup>a</sup> de mecola de Yuso con sus heredades montes y demás pertenezidos.

Bi sarrera hauetako kontuak ikusita, ematen du *la casa y caseria de Bernagoitia* izan daitekeela mintzagai dugun *Goienengoa*. Datu bitxia eta ohikoa Ursolaren bigarren abizena: Mekola. Itxura guztien arabera, bada, *Bernagoitia* eta *Mekola*, biak Bernagoiti auzunekoak, etxaldeetako Pedro eta Ursolaren ezkontza bat izango genuen 1650-1655 inguruan.

Dokumentu zaharrenetatik erreskatatu ahal izan dugun Pedro Bernagoitia Orozketa hau izan daiteke, bada, XVII mendeko erdialdetik aurrera *Goienengoa* bizi izan zena.

Ursola, Maria Perez eta Marina alabetan, ematen du Maria Perez izan zela etxaldean jarraituko duena.

## 2.2. Zelaiatarrak

**1703-05-20: Ezkontza (EE\_AA\_ezkontzak\_62936)**

Bernagoitin ezkontzen dira urte honetan aipatu dugun Maria Perez eta Antonio Zelaia Etxezarra. Aurrerantzean eta estreinatu berri dugun mende oso honetan zehar, Zelaia abizena izango da Goienengoa etxaldeari buruzko agiri desberdinetan azalduko zaiguna.

Antonio Zelaia eta Maria Perez Bernagoitiak bi seme-alaba izango dituzte: **Pedro** eta **Maria Zelaia**.

**1746: Fogerazioa (BFAAH-AH05013/061)**

Feligresía de Vernagoitia

...

Yt. Otra llamada **Goienengoa** de Pedro de Zelaia. Vibe en ella.

**Pedro Zelaia Bernagoitia** hau aurrerago ikusi dugun Antonio Zelaia eta Maria Perez Bernagoitiaren semea dugu, 1705-01-24an jaioa; 41 urtekoa, beraz.

---

<sup>3</sup> Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibo Historikoa (BFAAH). Aldamenean, artxibo bakoitzari dagokion signatura.



Ematen du Pedro hau *Mekolabekoa* etxaldeko Maria batekin ezkonduko dela, 1725 aldera. Urte honetatik aurrera, sei gizonezko-andrazko jaioko dira Bernagoitin: Magdalena, Pedro Antonio, Maria Perez, Migel, Maria Asensia eta Maria Rosa, 1726-1741 bitartean. Euren lehen abizena Zelaia zein Zelaia Bernagoitia izango da; bigarrena, Mekola, Mekolabekoa, Mekolabeaskoa zein Micolayuso.

Ematen du Pedro Antonio hau (1727-12-02an jaioa) izango dela *Goienengoa* jarauntsiko duena.

Pedro Antonio Garaiko Mikaela Arandia Andikoarekin ezkonduko da, Garain, 1766-07-26an. Euren seme alabak Pedro, Martin, Juan Asensio eta Maria Antonia.

Oraingo honetan ere, seme zaharrena den Pedro Zelaia Arandia Andikoa (1767-08-19an jaioa) izango da *Goienengoa* etxaldearen oinordeko izendatuko dutena.

**1796: Fogerazioa** (BFAAH-AH05014/024)

La de **Goienengoa** de Pedro de Celaia, de una hauittacion y una foguera.  
Otra **inmediata** del mismo Celaia tambien con una hauittacion. Vna foguera.

Pedro Zelaia Arandia Andikoa dela ematen du Pedro Zelaia hau, 1767an jaio dena.


**1798: Fogerazioa** BFAAH- (AH05016/078)

Urte honetako Fogerazioak, 1704koa oinarri harturik, data hartatik honetara eraiki diren etxe berrien zenbaketa egiten du:

Feligresia de Bernagoittia  
Primeramente la **casa nueva de Goienengoa**, propia de Pedro de Celaia.

**1799: Lurralde Estatistika** (BFAAH-AH05002/007)

Yo Pedro de Zelaya dueño de la **Casa de Goienengoa y su asesoria** baxo de Juramentto Declaro me producen al año con sus heredades y monttes un mil quattrocientos y quarentta rrs. 1440  
Y para que conste firme el sobre dho dia mes y año con los Señores Comisionados



1796-1799ko hiru sarreretakoa hau **Pedro Zelaia Arandia Andikoa** dugu. Pedro hau lurretako Magdalena Aldekoa Otalorarekin ezkondu da 1797-02-06an; lau seme-alaba izango dituzte, Magdalena (1797-12-20), Magdalena (1799-05-29)<sup>4</sup>, Maria Antonia (1800-08-17) eta Martin (1802-09-26).

Maria Antonia izendatuko dute oinordeko eta bere ezkontzarekin abizen berri bat helduko da *Goienengoara*, Erzilurruti.

<sup>4</sup> Litekeena da lehen Magdalena ume-umetan hil eta bigarrenari ere Magdalena izena jarri izana.



### 2.3. Erzilurruti eta Etxebarriarrak

Maria Antonia Zelaia hau, bada, 1796an lurretan jaiotako **Martin Antonio Erzilurruti Bediagarekin** ezkonduko da Bernagoitin, 1824-06-26an.

**1826: Censo de Policía delakoa** (BFAAH-AH05063/002)

**Goienengoa** baserria:

**Martin Antonio Ercil Urruti:** 30 años, casado, labrador, natural de Yurreta, tiempo de residencia 2 años.

**M<sup>a</sup> Ant<sup>a</sup> Celaia:** 25 años, casado, labrador, natural de Amorevieta, tiempo de residencia 25 años.

Jose Mastejaun: 26 años, soltero, sirviente, natural de Marquina, tiempo de residencia 5 años.

Fausta Ynza: 20 años, sirvienta, natural de Amorebieta, tiempo de residencia 20 años.

Martin Antonio eta Maria Antoniak lau seme alaba izango dituzte, Pedro (1826-06-29), Maria Antonia (1828-10-08), Magdalena (1831-01-04) eta Maria Josefa (1834-07-11).

Maria Antonia, 1828an jaioa, 1847-11-26an ezkonduko da, Bernagoitin, **Pedro Etxebarria Leginarekin, Etxebarria-Erzilurruti** sendia sortuz.

Ematen du Pedro Etxebarria hau Larrabetzuarra dela: izan ere, bertan, 1820-05-22an jaiotako bat dugu Eleiz Artxiboetan (*EE\_AA\_jaiotzak\_536241*). Are, senar-emazteen zortzi seme-alabak Larrabetzun jaioak dira.<sup>5</sup>

## 3. **Atutxa abizena Goienengoara**

Pedro Etxebarria eta Maria Antonia Erzilurrutiren ondoko zaharrena **Maria Antonia Etxebarria Erzilurruti** dugu, Larrabetzun jaioa 1849-08-05ean.

Maria Antonia hau dugu, hain justu ere, Obako *Kaudalategi* etxaldetik etorritako **Lorentzo Trifon Atutxa-Kaudalategi Zuberorekin** ezkonduko dena. Lorentzo eta Maria Antonia Bernagoitin ezkonduko dira eta bertan biziko dira, *Goienengoan*, 1832an eraikitakoan.

### 3.1. Lorentzo Atutxa eta Maria Antonia Erzilurruti

**1843-07-03: Lorentzo Trifon Atutxaren jaiotze agiria** (*EE\_AA\_jaiotzak\_140478*)

#### **LORENZO TRIFON DE ATUCHA ZUBERO**

En tres de julio de 1843, yo don Eusebio Uriarte, Presbítero y Cura Beneficiado de esta Iglesia parroquial de San Pedro Apóstol de Dima, bautize solemnemente en ella a un niño que, según declaración de la comadre, nació a las 10 de la noche de ayer, y le puse por nombre Lorenzo Trifón, hijo legítimo de Prudencio de Atucha y de Lorenza de Zubero, su legítima muger, naturales y vecinos de esta Anteiglesia. Abuelos paternos: Francisco de Atucha, natural de esta anteiglesia, y María Bautista de Arana, su legítima muger, de Aránzazu. Maternos: Tomás de Zubero y María de

<sup>5</sup> Ikus *Genealogiak*.



Amorrortu, su muger, naturales y vecinos de Dima, y fueron padrinos Lorenzo y Telesfora de Bustinza, hermanos, a quienes advertí el parentesco espiritual y demás obligaciones que contrajeron. Y para que conste, firmé = Eusebio de Uriarte

**1849-08-05: Maria Antonia Etxebarriaren jaiotze agiria (EE\_AA\_jaiotzak\_531692)**

**MARIA ANTONIA ETXEBARRIA ELCILURRUTI**

En la Yglesia Parroquial de Santa María de esta villa de Larrabezua, en cinco de agosto de mil ochocientos cuarenta y nueve años, yo don Juan José de Yruretagoyena, cura y beneficiado de ella y su unida anteiglesia, bauticé a una niña que nació a las diez de la noche del día de ayer (según declaró su padre) y la puse por nombre María Antonia. Es hija legítima de Pedro de Echevarria y María Antonia de Elcilurruti, naturales y vecinos de Larrabezua y Bernagoitia. Abuelos paternos: Pedro de Echevarria y Ana María de Leguina, naturales y vecinos de Severio y Larrabezua. Maternos: Martín Antonio de Elcilurruti y María Antonia de Celaya, naturales y vecinos de Yurreta y Bernagoitia. Fueron padrinos Pedro de Ecevarria y María Antonia de Celaya, residentes en Larrabezua y Bernagoitia, a quienes advertí el parentesco espiritual que contrajeron y demás obligaciones a que se constituyeron, y para que conste firmo = Don Juan José de Yruretagoyena.

**1879-08-04: Lorentzo eta Maria Antoniaren ezkontza agiria (EE\_AA\_ezkontzak\_53317)**

En cuatro de agosto de mil ochocientos setenta y nueve, en la Yglesia Parroquial de San Miguel Arcangel de Bernagoitia, Provincia de Vizcaya, obispado de Vitoria, yo don Juan Domingo de Zugazabeitia, cura párroco de ella, desposé casé y velé, por palabra de presente infacie Ecclesie, a Lorenzo de Atucha, soltero edad de treinta y cuatro años, natural y feligrés de Dima, hijo legitimo de Prudencio de Atucha y de Lorenza de Zubero, naturales y vecinos de Dima, con Maria Antonia de Echebarria, soltera edad treinta años, natural de Larrabezua y feligrés de esta, hija legitima de Pedro de Echebarria natural de Larrabezua y Maria Antonia de Ercilurruti, natural de esta y vecinos de Larrabezua, todos labradores; y habiendo precedido todos los requisitos necesarios para la validez y legitimidad de este Sacramento, siendo testigos Sebastian de Gallastegui, natural de Axpe, y Eugenio de Alcorta, natural y vecino de esta, y por en verdad lo firmo la presente partida en dho día mes y año = Don Juan Domingo de Zugazabeitia.

Ikusten dugunez, bada, Maria Antonia Etxebarria eta Lorentzo Atutxa 1879an ezkonduko dira Bernagoitin bertan eta han biziko dira.

Ezkontza honen fruitu izango dira bost seme-alabak: Pedro Maria, Maria Josefa, Antonio, Lorentza eta Bizente.



Bi alabak moja sartuko dira. Maria Josefa Begoñara joango da eta han emango ditu bere bizitzako urteak. Lorentza, aldiz, Lerman kokatuko da: *Maria Mercedes de San Lorenzo* moja-izena hartuko du.

Ematen du Antonio hau umetan hil zela; izan ere, egungo ondorengoek ez dute bere berri izan.

Pedro, 1880-08-07an jaioa, izan zen seme zaharrena eta berak jarauntsi zuen *Goienengoa*. Pedro bertan bizi izan zen gurasoekin ezkondu zen arte. Orduan, Eubako *Austoalarra* etxaldeko Dolores Orobiobasterrarekin ezkondu eta hara joan zen bizitzera.



Ezkonta honen fruituak Maria, Isidro, Elias eta Dolores izan ziren.

**Elias Atutxa Orobiobasterra** izango da *Goienengoa* jarauntsiko duena. Hau Ageda Aresti Zamalloarekin ezkonduko da eta hiru seme-alaba izango dituzte, Milagros, Elias eta Koldo.

*Goienengoa* etxaldea zatitu egin zan: 1832an (ber)eraikitako baserria Bizente anaia gazteari saldu zioten; dorretxearen aurrean dagoena, urteetan maizter izan zirenei.

Dorretxea, lursail eta basoak Elias eta Agedaren alaba Milagrosek jarauntsi zituen. Dorretxean bertan ere, urteetan, maizterrak izan dira, egun inor bizi ez bada ere.

### 3.2. Bizente eta Mikaela Atutxa

Ikusi dugunaren arabera, bada, *Goienengoa* baserrietxeetan, dorrean eta aurrekoan maizterrak izango ditugu. Lorentzo eta Maria Antonia 1832an eraikitakoan biziko dira.

Elias, seme zaharrena, Eubara ezkondu da; bi alabak moja bidali dituzte. Senar-emazteekin, bada, seme gazteena geldituko da, **Bizente Atutxa Etxebarria**, 1893-04-05an jaioa.

Obako *Kaudalategi* baserrietxera itzultzeko garaia dugu honako hau. Bertako seme Prudentzio Atutxa-Kaudalategi, Marina Larrea arantzazuarraz ezkondu da 1886-06-05ean. Euren seme-alabetan gazteena Mikaela izango dugu, 1898-03-14an jaioa.

Mikaela hau, 13 urte bueltan zituela (1911 aldera), *Goienengoa* baserrira bidaliko dute, neskame. Ez da sekula bueltatuko *Kaudalategira*.

Hogei bat urtetan zehar iraun zuen harmoniak *Goienengoan*. Bitartean, hainbat eta hainbat udaldi *Kaudalategiko* senitartekoen bisitak jasoz.

Jose, Lorenza, Tomas, Maria eta Mikaela Atutxa-Kaudalategi Larrea ziren Prudentzio Atutxa-Kaudalategi eta Marina Larrea Kareaga arantzazuararren seme-alabak. Tomas sarri joaten zen bere emazte Enkarna Albizua gernikarraz *Goienengoara*, uda pasatzera. Baita ahizpa Lorenza ere. Esan digutenez, hau Bilbon izan zan neskame bitza osoan zehar, eta honek ere *Goienengoan* pasatzen zituen udaldiak.





1931 alderako, Lorentzo eta Maria Antonia hilak dira; Bizente, semea, bakarrik gelditu da etxean neskame Mikaelarekin. Gogora dezagun Bizente eta Mikaela lehengusu propioak direla, hura Lorentzoren seme; hau, Lorentzoren anaia Prudentzioren alaba. Erroman, ezkontza-eragozpenaren dispentsa lortu eta ezkondu egiten dira. Hurrengo urtean, 1932an, irailaren 30ean, euren seme bakarra jaioko da, **Jose Antonio Atutxa Atutxa**.

### 3.3. Atutxa-Bikandi sendia



Diogunez, Jose Antonio izango da Bizente eta Mikalearen ondoko bakarra.

Jose Antonio Maria Anjeles Bikandirekin ezkonduko da, Amorebieta-Etxanon, 1957-10-12an. Euren hiru seme-alaba Bizente, Begoña eta Mertxe dira *Goienengoa* etxaldeko Atutxa abizenari jarraipena emango diotenak.

## 4. Genealogiak

### **Pedro BERNAGOITIA OROZQUETA & Ursola MECOLA ZAMALLOA**

Ursola BERNAGOITIA MECOLA (1679-05-19)  
**Maria Perez BERNAGOITIA MECOLA (1682-11-06)**  
Marina BERNAGOITIA MECOLA (1686-06-05)

### **& Josepha GORROÑO MECOLA**

Maria BERNAGOITIA GORROÑO (1695-07-16)  
Pedro BERNAGOITIA GORROÑO (1698-12-10)  
Clara BERNAGOITIA GORROÑO (1700-10-17)  
Pedro BERNAGOITIA GORROÑO (1704-01-11)  
Josepha BERNAGOITIA ORROÑO (1707-01-06)  
Guraso: Bernagoitia Orozqueta Pedro / Orroño Mecola Josepha  
Francisco BERNAGOITIA GORROÑO (1711-09-18)



**Maria Perez BERNAGOITIA BEDIAGA<sup>6</sup>**

**& Antonio ZELAYA ECHEZARRA**

*(Bernagoitia, San Migel: 1703-05-20)*

**Pedro ZELAYA BERNAGOITIA (1705-01-24)**

Maria ZELAYA BERNAGOITIA (1712-10-28)

**Pedro ZELAIA BERNAGOITIA (PEREZ DE BERNAGOITIA)**

**& Maria MECOLA BE(AS)COA/MECOLAYUSO SAGARRAGA**

Magdalena ZELAIA MECOLAYUSO (1726-02-01)

**Pedro Antonio ZELAIA MECOLA BEASCOA (1727-12-02)**

Maria Perez ZELAYA BERNAGOITIA, MECOLABEASCOA (1731-04-12)

Miguel ZELAIA MECOLA (1733-10-10)

Maria Asensia ZELAYA MECOLABEASCOA (1736-06-30)

Maria Rosa ZELAIA BERNAGOITIA, MECOLA BECOA (1741-09-19)

**Pedro ZELAYA GOYENENGOA MECOLA VECO/VEASCOA**

**& Micaela GARAY ANDIA ZELAYAGOIENENGOA edo/eta GARAY ANDIA GAÑAGA/JAÑAGA**

*(Garai, San Joan: 1766-07-26)*

**Pedro ZELAYA ARANDIA ANDICOA (1767-08-19)**

Guraso: Zeyala, Mecola Pero / Arandia Andicoa, Gayñaga Micaela)

Martin Enrique ZELAYA GOYENENGOA GARAY ANDIA (1770-07-15)

Juan Ascensio ZELAYA GOIENENGOA GARAY ANDIA (1773-11-30)

Maria Antonia Aniseta ZELAYA GOINENGOA GARAY ANDIA (1775-04-17)

**Pedro CELAYA BERNAGOITIA GOIENENGOA, GARAY ANDICOA**

**& Magdalena ALDECOA OTALORA IBARRONDO**

*(Iurreta, San Migel: 1797-02-06)*

Magdalena ZELAIAGOIENENGOA ALDEKOA (1797-12-20)

Magdalena ZELAIA OTALORA (1799-05-29)

**Maria Antonia ZELAIA ALDEKOA OTALORA (1800-08-17)**

Martin ZELAIA OTALORA (1802-09-26)

**Maria Antonia ZELAIA ALDECOA OTALORA (1800-08-17)**

**& Martin Antonio ERCILURRUTI BEDIAGAZUBIETA (1796, Iurreta)**

*(Bernagoiti, San Migel: 1824-06-26)*

Pedro ERCILURRUTI CELAIA (1826-06-29)

**Maria Antonia ERCILURRUTI CELAYA (1828-10-08)**

Magdalena ERCILURRUTI CELAYA (1831-01-04)

Maria Josefa ERCILURRUTI CELAYA (1834-07-11)

---

<sup>6</sup> *EE\_AA\_jaiotzak\_62936*: "... a Antonio de Celaya, hijo legitimo de Ynigo de Celaya y Maria de Echezarra, vecinos de la anteiglesia de San Miguel de Yurreta; y a Maria Perez de Bernagoitia, hija legitima de Pedro de Bernagoitia y de Ursola de Bediaga, vecinos de la dha Ante Yglesia de Bernagoitia..."



**Maria Antonia ERZILURRUTI ZELAIA**

**& Pedro ETXEBARRIA LEGINA** (Larrabetzu)

(Bernagoiti, San Migel: 1847-11-26)

**Maria Antonia ETXEBARRIA ERZILURRUTI** (1849-08-05, Larrabetzu)

Maria Juana ETXEBARRIA ERZILURRUTI (1852-03-08, Larrabetzu)

& Kandido UNDABEITIA PAGARY

(Larrabetzu, Andra Mari: 1878-02-07)

Sebastiana Magdalena ETXEBARRIA ERZILURRUTI (1855-01-20, Larrabetzu)

& Gregorio GARIBI EREÑO

(Larrabetzu, Andra Mari: 1878-11-30)

Eusebio Pedro Ignazio ETXEBARRIA ERZILURRUTI (1857-07-31, Larrabetzu)

Josefa ETXEBARRIA ERZILURRUTI (1860-11-28, Larrabetzu) (†1897-03-26, Larrabetzu)

Gregoria ETXEBARRIA ERZILURRUTI (1860-11-28, Larrabetzu)

Paula ETXEBARRIA ERZILURRUTI (1863-06-25, Larrabetzu)

& Ignazio GARIZURIETA EGIARTE

(Larrabetzu, Andra Mari: 1891-07-04)

Pedro ETXEBARRIA ERZILURRUTI (1866-06-15, Larrabetzu)

**1. Maria Antonia ETXEBARRIA ERZILURRUTI** (1849-08-05)

**& Lorentzo Trifon ATUTXA-KAUDALATEGI ZUBERO** (1843-07-02)

(Bernagoiti, San Migel: 1879-08-04)<sup>7</sup>

1.1. **Pedro Maria ATUTXA ETXEBARRIA** (1880-08-07)

& Dolores OROBIOBASTERRA ARANDIA

1.1.1. Maria ATUTXA OROBIOBASTERRA

1.1.2. Isidro ATUTXA OROBIOBASTERRA

1.1.3. Elias ATUTXA OROBIOBASTERRA

& Ageda ARESTI ZAMALLOA

---

<sup>7</sup> EE\_AA\_ezkontzak\_53317: "En cuatro de agosto de mil ochocientos setenta y nueve, en la Yglesia Parroquial de San Miguel Arcangel de Bernagoitia, Provincia de Vizcaya, obispado de Vitoria, yo don Juan Domingo de Zugazabeitia, cura párroco de ella, desposé casé y velé, por palabra de presente infacie Ecclesie, a Lorenzo de Atucha, soltero edad de treinta y cuatro años, natural y feligrés de Dima, hijo legitimo de Prudencio de Atucha y de Lorenza de Zubero, naturales y vecinos de Dima, con Maria Antonia de Echebarria, soltera edad treinta años, natural de Larrabezua y feligrés de esta, hija legitima de Pedro de Echebarria natural de Larrabezua y Maria Antonia de Ercilurruti, natural de esta y vecinos de Larrabezua, todos labradores; y habiendo precedido todos los requisitos necesarios para la validez y legitimidad de este Sacramento, siendo testigos Sebastian de Gallastegui, natural de Axpe, y Eugenio de Alcorta, natural y vecino de esta, y por en verdad lo firmo la presente partida en dho dia mes y año = Don Juan Domingo de Zugazabeitia.



Milagros ATUTXA ARESTI  
Elias ATUTXA ARESTI  
Koldo ATUTXA ARESTI

1.1.4. Dolores ATUTXA OROBIOBASTERRA (1915) (†1998-12-26)  
& Jose Maria LINAZA ASTOBIZA

Nekane LINAZA ATUTXA  
Purificacion LINAZA ATUTXA  
Jose Maria LINAZA ATUTXA & M<sup>a</sup> Pilar MILLAN LLORENTE  
Luis Elias LINAZA ATUTXA & Miren Itziar FERNANDEZ AGIRRE

1.2. Maria Josefa ATUTXA ETXEBARRIA (1885-04-26)

1.3. Antonio ATUTXA ETXEBARRIA (1887-11-07)

1.4. Lorentza ATUTXA ETXEBARRIA (1890-06-11)

1.5. Bizente ATUTXA ETXEBARRIA<sup>8</sup> (1893-04-05) (†1959-07-07)

& Mikaela ATUTXA-KAUDALATEGI LARREA (1898-03-14) (†1989-10-02)

1.5.1. Jose ANTONIO ATUTXA ATUTXA (1932-09-30) (†2015-02-14)  
& Maria Anjeles BIKANDI OLANO (1936-11-25)  
(*Amorebieta-Etxano, parrokia: 1957-10-12*)

Bizente ATUTXA BIKANDI (1959-04-17)  
& Esther GANDARIAS MALAXETXEBARRIA (1963-02-17)  
(*Belendiz: 1992-08-22*)

Markel ATUTXA GANDARIAS (1993-08-20)  
Iñigo ATUTXA GANDARIAS (2001-07-30)

Begoña ATUTXA BIKANDI (1960-09-16)  
& Jokin ARRINDA ARREGI (1961-02-18)  
(*Goiuri, lurreta: 1985-06-07*)

Ismene ARRINDA ATUTXA (1988-05-03)  
Ander ARRINDA ATUTXA (1991-01-24)

Mertxe ATUTXA BIKANDI (1963-10-11)

Izaro LARREA ATUTXA (1987-01-22)

---

<sup>8</sup> Bizente Atutxa Etxebarria eta Mikaela Atutxa-Kaudalategi Larrea lehengusu-lehengusina ditugu.